



Marisol RAMIREZ | FOKU

IKUSMIRA

DURANGOKO AZOKA

Garai batean ez zen hainbeste gazte ikusten. Helduak ere ez ziren samaldan joaten. Hamarkada bat eta erdi du Landako Erakustazokaren be-roan, baina lehenago beste lau hamarkada hainbat lekutako karpetan, Merkatu Plazan eta Andra Mariaren basilikako arkupean. Han egiten zenean, ez zegoen goienkalerik, ez barrenkalerik, eta argitaletxe gutxiagok parte hartzen zuten, argitaletxe gutxiago zeuden-eta, batez ere euskal argitaletxeak. Berez, Durangoko Euskal Liburu

eta Disko Azoka da, baina nahikoa du Durangoko Azoka. Ez du jatorriaren adierazpiderik behar, RAEk ez bezala. Izan ere, euskalgintzaren topagune izan nahi zuen, eta hala da. Arazo ugari izan ditu mende erdia baino gehiagoan, mota guztietako arazoak, ordezkatzeko duen jendarteak bezala, baina, jendarteak berak egin bezala, arazoak gainditzen joan da, iparra galdu gabe eta okerrak gorabehera. Horri esker, urtero gazte tropela hartzen du bere kaleetan. Nola oroituko du liburutik bista altxatu duen neskakilak mende erdi barru? Xabier Izaga Gonzalez